

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko ekainaren 23a / VI. urtea / 184. zenbakia

Bilaketa sariak: mundu osoko idazleak Agoitzen

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Hemeretzi urteko bizitzaren ondotik Agoizko Bilaketa taldeak antolatzen dituen Aoz Hiria eta Tomas Fermin Arteta poesia eta narrazio sariak goia jo dute. Duela bi urtetik hona sariari eta partaidetzari dagokienez garrantzitsuenetakoak dira gaztelaniaz egiten direnen artean, eta iaz, kasu, 2.876 poema jaso zituzten munduko herrialde

guztietatik. Epaimahai maila handikoa, ospe eta izena ongi merezita... Agoitzen egindako lan honek askoren onspen hitzak jaso ditu, nahiz eta beste askok Iruñera ekarri nahiko luketen. Tamalez, duela lau urte desagertu ziren euskarazko sariak, zailtasun ekonomikoak eta partaidetza urria zirela medio.

Hildako utopiak

Duela hogeita hamar urte utopiaren bila abiatu zen belaunaldia galdu egin da. Luxozko bulegoetatik SOS deiak bidaltzen dituzte espioiak entzuten ari direla jakin gabe eta amets egiten dute Parisko barrikadek zutik segitzen dutela, ez zirela inoiz Indiako hondartzetatik itzuli eta Penelope bestelako mundu bat lortu nahi zuen bidaiariaren zai dagoela oraindik ere. Esnatzen direnean bankuaren paperak begiratzeko dituzte eta momentu batez goragalea sentitzen dute, baina laster pasatzen zaie scotch tragotxo bat hartuta. «Gazteegiak ginen, ez genekien zer nahi genuen», errepikatzen diote beren buruari eta leihotik begiratzeko dutenean itsusia iruditzen zaie mundua, lehen bezain itsusia, baina orain ez dute aldatzeko gogorik. Nahikoa egin dute beren buruak salbatzen eta orain arte behinik behin gehienak ez dira egunkariak ustelkeria kasuei eskaintzen dizkieten orrialdeetan azaldu. Hala ere ez daude lasai, ez dute aspaldiko argazkietako gaztea ezagutzen eta berriak entzutean errudun sentitzen dira, egun batean galdu zuten utopiak nonbaitetik begiratzeko diela somatzen dute eta urduri jartzen dira. Gazteak inozoak izaten dira, ez dakite ekonomiak funtzionatzen ez badu dena pikutara doala eta segurtasuna motorola bezain beharrezkoa da, esaten du politikoak ejekutiboan bileretan hirugarren Whiskya hartu ondoren. Seigarrena edanda aspaldiko garaiez hasiko da hizketan eta gauean ezin izango du lorik egin, hotel merke batean abandonatutako emakumeaz oroitu da eta hark ere utopia biltzeko grina galduko ote zuen galdetuko dio bere buruari utopia urrutiko herri bat bailitza. Ez daki bere mamu guztiak ohearen inguruan bildu direla eta parrez lehortzen ari direla, jakingo balu beharbada ez litzaioke asko inportako, txekak ongi gordeta dauzka kajoian eta idealismoa kargua hartu zuen egun berean hil zen, hotel txar batean gelditu zen emakumea bezala, memoria bezala. Azkenean loak hartu du.



SK

GURE AUKERAK

ANTZERKIA



Pikor Teatro antzerki taldeak 'La funerala' izenburuko lana taularatuko du asteburu honetan Antzin eta Arrizabalaga herrietan. Udaberriko Bira programazioaren barruan, larunbatean Antzineko pilotalekuan ariko dira, arratsaldeko 7etatik aurrera. Igandean, berriz, Arrizabalagako pilotalekuan izango dira, eguerdiko ordubatean.

Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak 'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko lana taularatuko du asteburu honetan Arronitz eta Biana herrietan. Bihar Arronitzen izanen dira, eguerdian, herriko eskoletan; eta igandean Biana-ko plazan ariko dira, gaueko 10.00etan.

'Zalapartaka' izeneko antzez-lana taularatuko du bihar larunbata, hilak 24. Trokolo antzerki taldeak Zangozan. Mozorro Berri programazioaren barruan, arratsaldean izanen da.

MUSIKA



'Los Dinosaurios' eta 'Cinco meses sin nombre' musika taldeen kontzertua izanen da gaur ostirala, hilak 23, Barañaingo Txoznetan. Herriko jaien barruan antolatuta, goizaldeko ordubatean hasiko da Ferietako Esparruan.

'Inaki and Friends' Jazz taldearen kontzertua izanen da gaur ostirala, hilak 23, Atarrabiako Antso VI. Jakitunaren Plazan. Udalak antolaturik, arratsaldeko 8.30etan hasiko da.

'Balerdi-Balerdi', 'Parabellum' eta 'Begira' musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, hilak 24, Barañaingo Ferietako Esparruan. Herriko jaien barruan, goizaldeko ordubatean hasiko da.

IKASTAROAK



Eszenografia, Esgrima, Gidoien Idazkera, Interpretazioa, Zuzendaritza eta Haurrentzako Antzerkia eta Joku Tailerrak ikastaroak antolatu ditu udarako Nafarroako Antzerki Eskolak. Matrikula epeak ekainaren 26a eta 30a bitartean eta abuztuko 7a eta 14a bitartean daude zabalik.

Autodefentsa ikastaroa antolatu du heldu den asterako Andrea emakumeentzako zerbitzuak. Udarako eta batez ere jaietarako lagungarri izan dezan, astelehene ostiralera bitartean emanen dute, Andreamen egoitzan, arratsaldean. Matrikula egiteko 22 77 14 telefonora deitu.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Izura, Jutsi eta Arhantsusi Intsumituak

Ostankoa heldu zizaitzaigun berria. Izura, Jutsi eta Arhantsusiko herritarrek hauteskundeak erabili zituzten haien haserrea agertarazteko. Dimisioa aurkeztu behar duten hautetsien jarrerarekin bat egin ez, ez zuten inor hautatu herriko etxetarako. Bozka zuria eman zuten. Europar Komuni-

'mendialde' izendatuak diren artio». Afera nola amaituko den ez dakigu oraino, baina herritarren jarrera intsumitua argia da.

Abertzaleek hiru herri horietan ukan zezaketen indarra jakin gabe gelditu gara batzuk; herritarren elgarretarazteak, ordea, jakinmin guztiak uxatu

Galdere anitz dira. Erantzunak heldu diren hileotan ematen dituzte herritarrek. Hitzari eutsiko ote diete guztiek? Zentzat dira prest jokaera honek eska dakizkieken hurrengo urratsak emateko? Bai. Egia da Nafarroko —Baxe nahiz Garai-kook— buru-gogor fama daukagula; eta hori, halako auzi-



tateak 'Zone de Montagne' edo 'Mendialde' noiz izendatuko zain daude, klasifikazio horretan ez diren bitartean, hainbat dirulaguntza ukaturik baitute.

Izura eta Jutsiko adiskideek, Iruñeko espetxera igorri dizkidan gutunetan erran didaten bezala, herritar guztiek aho batez hartutako jarrera da: «ez dugu hautetsirik izanen gure herriak

ditzake. Baina... Beti bada bainarik... Nortzuk eutsiko diote hitzari hilabeteak edo urteak pasa ahala? Denek? Noiz arte jasan ahal dituzte Izurakoek, Jutsitarrek edo Arhantsusarrek Subprefekturak zuzenki ezarritako agintariak? Intsumisioaren errannahi onez jantzi dudana herritarren hitz emate honek, ez al du bertzelako urratsik behar?

tan, tasun bilakatu ohi da.

Idazki hau sinatzen duenaren dago Jutsi, Arhantsusi eta Izurako abertzaleak, herriari dagozkion aferen defentsan, behar bezain bertez urrats emateko prest direla; izan ere, horretan baitatza abertzaletasunaren oinarria. Eta Parise, Bordele edo Pabeko ogiaren zain gelditzea nahiko dutenek? Hitza hitz?

ASTEKO PERTSONAIAK



Patxi Gorraiz
Itoizko koordinakundeko kidea

Joan den urrian epaitu eta absolbitu ondoren, Nafarroako Entzutegi Probintzialak bi urteko kartzela zigorra ezarri du orain Patxi Gorraiz Itoizko koordinakundeko kidearen kontra. Berarekin batera Daniel Unziti taldekidea epaitu zuten, eta bere aurka hiru urteko kartzela ezarri du Nafarroako Entzutegi Probintzialak. Agintarien kontrako atentatua izeneko delitua leporatzen die epaileak, 1.993. urteko protestaldi batean Goardia Zibilen kontra harriak bota zituztelako. Bereaiek urrian izandako epaketan garbi utzi zuten ez zutela horrelakorik egin, egun horretan ez baitzeuden gertakizunen lekuan. Epaituek errekurtsioa aurkeztu dute, baina beldur dira ez ote duten zigorra bete beharko.



Txema Larrea
Idazlea

Nafarroako Euskal Idazleak II' izenburuko liburua idatzi eta argitaratu berri du Txema Larrea idazleak, Pamiela argitaletxearen eskutik. Sail honen bigarren zati hau generoka antolatu du Larreak, lehendabizikoa idazleka osatu bazuen ere. Gainera, hirugarren bat egiteko asmoa duela ere azaldu du. Bigarren honetan kazetaritzari arreta berezia eskaini dio, liburuan iritzi artikuluak, kulturari buruzko berriak eta kronikak bildu dituelarik. Hegoaldeko hamazazpi idazleren gorabeherak jaso ditu obra honetan, Espainiako gerra zibilaren ondokoak gehienak. Era berean, Pedro Diez de Ultzurruni eskaini dio bere azken liburu hau, gerra ondoko urteetan euskararen alde egin zuen lanagatik. Liburu honekin euskal kazetaritza ez dela gaurkoa erakusten da.

EKITALDIAK



Gai eta Lesbianen Askapenerako Nazioarteko Eguna izanen da heldu den ekainaren 28an eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun hauetarako EH-GAM eta Lumatza homosexual eta lesbianen taldeek Iruñean. Bi mintzaldi eman dituzte dagoeneko, eta gaur gauean Gai-Festa Mundiala eta kontzertua antolatu dute Gaztetxean, gaueko 9etatik aurrera. Bertan sorpresa ugari izanen direla ziurtatu dute. Bihar, berriz, 'Gai intsumisioaren topaketak' burutuko dituzte, goizeko 10.00etan hasita, Gaztetxean. Gauean, eta Lumatza lesbianen taldeak antolatuta, emakumeen jai eta afaria izanen da Berriozarko pisinetan. Igandean, ekainak 25, 'Priscilla basamortuko erregina' filma eskainiko dute, gaueko 10.00etatik aurrera, Gaztetxean. Astelehenean, berriz, jai-kontzentrazioa burutuko dute katedralaren ondoan, 'Opus Kanpora' leloarekin, eta gauez, 10.00etan, 'Go fish' filma ikusgai izanen da Euskal Jai zaharretan. 'Lesbiana eta ama izatea' mintzaldia eskainiko du asteartean Marga Sanchez Barna lesbianen taldeko kideak, 10.00etan, eta bukatzeko, asteazkenean manifestazioa antolatu dute arratsaldeko 8.00etan, Gaztelu Plazan.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehene ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Egues-Uharte



Sanjoanak eta Euskararen Eguna nahasiko dira asteburu honetan.

Euskararen Eguna gaurtik

EGUES-UHARTE

Euskararen Eguna ospatuko da asteburu honetan herrian, eta bide batez San Joan gauari ere ongi etorri egingo zaio: dantzak, pilota partiduak, bazkaria eta musika izango dira. Ekitaldien antolatzaileak Berdintasuna Elkartea eta Uharteko udalak dira, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan dute horretarako.

Gaur, ostirala, Sanjoan suak izango dira Atondo presaren ondoan, eta bertan eskainiko du kontzertua Koiuntura taldeak. Bihar larunbata, hilak 24, pilota partiduak izango dira, eskuz zein paletaz. Hasteko Sueskun-Olague ariko dira Saez-Bordaren aurka, eta paletaz Udaberriko

Txapelketaren finala jokatu da.

Igandea izango da, baina, egun nagusia, goizeko bederatzietatik aurrera egun osoan zehar ekitaldi ugari izango baitira. Ordu horretan goiz-soinuak izango dira herrian zehar herriko gaiteroek alaiturik, eta hamarretan kalejira izango da, partaide direla zankoak, zantantzarrak, erraldoiak, txistulariak, dantzariak, gaiteroak eta fanfarre bat. Ondoren, japoniar bonbak jaurtikiko dira. Eguerdian euskarazko meza izango da, eta 12.30etan Uharteko Dantzari Txiki eta Txalapartaren emanaldia izango da.

Eguerdiko ordu batean herri kirolak ikusi ahal izango dira,

modalitate ezberdinetan. Hasteko erakustaldi bat izango da, zutikako enborra mtozerraz ebakitzen, eta gero lasto jasotzaileak eta harrijasotzaileak ariko dira, txingekin batera. Ondoren, Ortzondo Dantza Taldearen emanaldia prestatu dute antolatzaileek.

Ordu bi t'erdietan herri bazkaria izango da, eta bazkalondoan bertsolariak eta Ardanbera Fanfarrea. Arratsaldeko bostetan haurrentzako Malabare jokoak prestatu dira eta seietatik hamar t'erdia bitarte dantzaldia izango da Joserra eta Fermintxo trikitilariak jostatuta. Gogoratu behar da, bestalde, goizean zehar eskulangileen erakusketa izango dela.

Eulate

Ameskoaren Eguna, «duela hainbat mendez geroztiko zorra kitatzeko»

EULATE

Ameskoaren Eguna ospatuko da bihar larunbata Eulaten, ibar honetan eratu den talde kulturalak antolatuta. Eguna iragartzeko egin duten idazkian hainbat arrazoi aipatzen dute eguna ospatzeko ideia justifikagarri. «Ameskoabarrenek zein Ameskoagoienek bagenuen kitatu gabeko zor bat duela hainbat mendetik hona. Milurteko berriaren atek zabaltzen dizkigun XX. mende hau kitatu gabe bukatzea ez zaigu gomendagarria iruditzen». Festa egiteko arrazoitzat eman liteke hainbat urtez «paisaia, herria eta gizartea» elkarrekin bizi eta egin

izana, «historia bat, kultura bat eta baliabide batzuk elkarrekin bizi eta osatu ditugulako».

Aitzinetik hainbat pasarte historiko eta kulturalen errepaso egiten da idazkian, azpimarratzeko ibar osoko biztanleen arteko historia amankomuna, baina bat gogoratzen dute bereziki: 1412ko uztailaren 2an jatzotako gertaera. Orduan Nafarroako Koroak onartu egin zituen Ameskoabarrenek eta Ameskoagoienek 'Limitaciones' izeneko lurraldeetan ziztuzten eskubideak. «Gertaera hori da gure historia luzeko garrantzitsua, eta hori gaurtik aurrera urtero gogoratuko dugu».

Bihar, beraz, ezkilek joko dute bederatzietatik aurrera, gogoratzeke eguna hasi dela, eta gero mugari bat paratuko da Eulateko saroietan. 10.30etan meza izango da, eta 11etan omenaldia egingo zaio Luciano Lapuente herriko historilari eta biltzaile nekazinari. 11.30etatik aurrera artisau feria, Ameskoako Gazta Lehiaketa, ardi-mozte erakustaldia, txalaparta eta erakusketak izango dira ikusgai. Hiruretan herri bazkaria izango da. Arratsaldeko seietan 'Birlibirloki' Haur Taldeak eskaniko du lan bat, eta arratsaldean herri kirola, txistorrada eta berbena izango dira.

Mendillorri

D ereduko hiru gela berri ikastetxean

IRUNEA

D ereduko hiru ikasgela osatzeko adina matrikulazio lortu dira Mendillorriko ikastetxean, Gaztelumendi bertako kultur taldeak Udaleko euskal zerbitzuarekin batera egindako kanpainaren ondorioz. Emaiza aparta da oso, iaz gela bakarra osatzea lortu baitzen. Gainera, abuztu aldera beste kanpaina bat egingo dute Gaztelumendikoek irailean amaituko den matrikulazio epean haur gehiago lortzeko.

Kanpaina azken bolada honetan egin dute kultur taldekoek bai D ereduan beste ikastoletan matrikulatuta dauden haurrekin eta baita hiru urteko haurren gurasoekin ere, hiri berrian matrikulazio hau bultzatzeko asmoz. Kanpainaren emaitzak itxaropenez beterik utzi dituzte taldekoak, hiru urteko 24 haur, lau urteko 21 eta bost urteko bederatzita haurren izenak baitauzkate dagoeneko zerrendan. Aipatu behar da hiru urtekoen artean 21 haur daudela apuntatuta erdarazko ereduan. Iaz ikasgela bakarra zegoen Mendillorri D ereduan eta lehen mailako 13 haur eta bigarren mailako hiru zeuden han.

Hau da Iruñerrian sendotzen den D ereduko ikastetxe berria, beste toki frankotan gurasoek administrazioaren gaindiezinezko trabak aurkitu dituzten bitartean. Gogoratzea besterik ez dago Iruñeko Alde Zaharrako San Francisco eskoletako borroka luzea D ereduko ikasgela lortzeko.

Eltzaburu

Haurrendako Eguna antolatu du Euskara Zerbitzuak gaurko

IRUNEA

Eskolako egunak bukatzeaz daudela, ikastetxe guztietan urduritasun ezohikoa bizi da egunotan. Hori gozatzeko eta, bide batez, 'oporren garaiari' hobeki egoki daitezen, Ultzamako Udala Euskara Zerbitzuak haurrendako jaia antolatu du gaur ostiralerako Eltzaburur. Arratsaldeko seietan haur jokoak izango dira hurbiltzen diren guztiendako, eta 19.30etan Pello Añorga ipuin kontalariak bere lana egingo du: kontu-kontari ariko da. Ordubete geroago musikak alaituko du herria, Sakanako trikitilariekin, eta bitartean uda eta oporrak ongi hasteko txokolatada izango da denon gozamenarako. Patata frijituak, bizkotxoak... ez da ezer faltako.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Presoen umorea, ezezagun hori (I)


Jakin badakit hainbat intsumitu presok adaptazio arazoak izan dituztela askatasuna berreskuratzearren gibeletik, espetxean barneraturiko umore ohiturak preso ez direnei ulergaitzak gertatzen zaizkiela dela medio, Bergizarteratze arazok gaindigarri izan daitezten, hala honako kolumna honetan nola datozen asteotakoan, Intsumitu Presoen Kolektiboaren umorearen berri emanen dut, «mutikotxoak kartzelan izan zenetik egiten dituen gauza arrunt arraro horiek» ulergarriagoak egingen ditudalakoan. Horretarako, banan-banan azalduko ditut gure artean gehien egiten diren txantxak, presoen umorea, ezezagun hori, hobekien azaltzen duten adar-jotzeak hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, klasiko baten berri emanen dut; izan ere, 'Galtza' deritzan ziri-sartzea



kartzelako umorearen klasikoan artean klasikoetarikoa da. Seguru asko sinpletasunean datza bere arrakasta, bere sinpletasun horri esker alboan kide bat despistaturik egotea besterik ez da behar umore ekintza hau aurrera atera ahal izateko. Gauzak horrela, edonoren esku dago txiste hau egitea. Supitoki prakak kolpe bakar batez jeitsi behar zaizkio alboan dagoen txoriburuari. Eta kitto. Espetxekeo patioan gauza simple hori behar bezala egiten bada, ziurtaturik daude inguruko barre-algarak. Gomendio bat: ahal izatekotan bederen, komenigarria da broma pairatzen duenak txandal galtzak eramatea, horrela askoz errazagoa baita prakak kolpe bakar batez erantztea, eta beraz, txantxa biribil-biribila izatea.

Gauzak horrela, badakizu, tabernako barran lasai aski garga bat hartzen ari zarelarik, kartzelatik atera berria den koardilako lagun minak besterik gabe galtzak jeisten badizkizu, ez zaitez nerbiostu, ez ezazu kartzelan zoratu dutela pentsa, inolako maliziarik gabeko ziri-sartzea izanen da eta, presoen umore ezezaguna, besterik ez.



Yolanda Azkona eta Salvador Gutierrez, Bilaketa taldeko partaideak.

JOXE LACALLE

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Hemeretzi urteren ondoren, Agoizko Bilaketa taldeak urtero antolatzen duen Aoiz Hiria poesia saria eta Tomas Fermin Arteta narratibakoa onenen artean daude gaztelarazkoen sailean. Onenak gurean, eta onenetakoak mundu zabalean. Nagusi dira sariei dagokienez —600.000 pezetakoa bakoitza (24.000 libera inguru)— eta nagusi aurkezten diren lan kopuruari erreparatuz gero. Iaz 2.800 poema inguru eta 900 narratibatik goiti. Hori marka.

Espainian eta idazle gaztelaradunen artean arras ezaguna da, lehiaketak ez du, ordea, arrakasta handia erdietsi gure lurraldean, eta urtero ezkutatu samarturik igarotzen dira deialdiak eta sarien banaketak. Ez da berritasuna, ez antolaketa kaskarra edo besteren baten itzala. Baina ez da Iruñean, Agoitzen baizik, bi mila biztanle inguru dituen herri batean. Han da sortua, han garatua eta han jarraitzekoa. Oso urrun, zentralismoa azken muturreraino eramatera ohituta dagoen lurralde batean. Urtero jasan behar izaten dituzte presioak eta gomendioak Iruñera eramateko antolakuntza eta sarien banaketak, eta urtero, temoso haiek, Irati ondoko herriko udaletxean ematen dituzte saridunen izenak. Ez dute, halaber, azpiegitura edo publizitate askoren beharrik, ar-

Aoiz Hiria poesia lehiaketarako epea joan den ostiralean bukatuta, Tomas Fermin Arteta narratibakoa uztailaren 28an izango du azken eguna. Bi sari hauek, Agoizko Bilaketa taldeak antolatuta, gaztelarazkoen artean garrantzitsuenak dira egun Euskal Herrian, bai sariei bai partaidetzari dagokionez. Iaz 2.800 poema inguru bildu ziren taldean, eta aurten ez dira oso urrun ibiliko. Euskarazko sariak duela lau urte desagertu ziren.

Agoitz, poesiaren erresuma

do ona berez saltzen baita, ahoz aho zabaltzen da bere dohaiaren berri. Deialdia urtero-urtero iristen da, hutsik egin gabe, mundu zabaleko 2.500 etxetara, eta, bueltan, beste hainbeste lan heldu ohi dira. Arrakastaren zergatia? Lana, lana eta lana, horrelakoetan ohi den bezala.

Hemeretzi urte hauetan taldean gauza asko aldatu badira ere, batez ere jendea eta lan kopurua, hasierako asmoak orain-

Duela 19 urte hasi zirenean sariak «irri egitekoak» ziren eta papera eta kartoia biltzen zuten Agoitzen Bilaketa taldekoek sariak eman ahal izateko.

dik baliagarriak dira, arrakastaren bila joan beharrean arrakastak beraiek bilatu dituelako. Agoizko koadriletako lagun batzuk elkartu zirenean ezin pentsa zezakeen inork hainbat urteren buruan handik eta hemendik hots egingo zietela lehiaketan parte hartu ahal izateko. Nafarroatik ezezik, Espainiatik, Hego Amerikatik, Europatik, Japonetik! eskatuko zietela mundu osorako deia zabaltzeko. Baina halaxe gertatu.

Poesia, narrazioa eta pintura abiatu ziren batera 1976 hartan. Hasierako sariak, hamar mila eta bost mila pezetakoak ziren, «irrigarriak» Salvador Gutierrez Bilaketa taldekoak dioenez. «Etxean aritzeko» lehiaketa nahi zuten hasieran, eta sariak ordaintzeko kartoia eta paperak biltzen aritu ziren Agoizko kaleetan. Bederatzi urtez egon zen

saria Nafarroako idazleei mugatuta, baina berehala zabalkunde izugarria hartu zuen urtero egiten zen deialdiak. «Sariak igotzen hasi ziren» gogoratu du Gutierrezek, «eta Nafarroako Etxeak eta komunikabideak erabiltzen genituen zehar zabaltzeko, berehala Espainiako hainbat tokitatik hots egin ziguten esanez ea zergatik ez genuen zabaltzen deialdia. Hori egin genuen duela zortzi urte». Fama ez zen hor

Duela lau urte euskarazko sariak desagertu egin ziren, dirulaguntzak urriak eta partaidetza eskasa zirelako eta izen berriak ateratzen ez zirelako.

gelditu, eta berehala hasi ziren iristen eskutitzak Hego Amerikatik, Estatu Batuetatik eta gaztelaraz idazteko ohitura zuen edonor zegoen toki orotik, eta duela bost urte nazioarera zabaltzeko erabaki zuen taldeak. Ordurako ospe ongi merezia zuen sariak, urtetik urtera handitu baino egin ez dena.

Baldin eta sarien mailak lanen kalitatearen parera jotzen baldin badu Bilaketa sariek goitik gertu jotzen dute urtero, dudarik ez da. Hemeretzi urte hauetan behin bakarrik gelditu da saria emateke, behar besteko kaliterik ez zela koan, eta bazter guztietatik pilatzen ziren lanak baloratze koan buruhauste bat baino gehiago izan dute epaimahaikideek. Duela bi urte arte bi sari egon ziren bai narratiban nola poesian ere, 400.000 eta 200.000 pezetakoak hurrenez hurren, baina lanen artean epaia ematera koan sortzen diren dudak munta handikoak izan zitzaizkien behin baino gehiagotan taldekoei. «Ia beti bagenuen barruko hotsa esaten ziguna ongi egin ote genuen bati sari eman eta besteari kentzerakoan, hain handia baitzen maila». Beraz, duela bi urte sari bakarra ematea deliberatu zuten, eta 600.000 pezetakoak onartu.

Horretarako bi finantziabide nagusi dituzte taldean. Alde batetik taldekideen kuotak eta, bestetik, Nafarroako Gobernuko di-

Iaz 2.876 poema, 900 narrazio eta 140 koadro inguru jaso zituzten. Aurtengo deialdia zabalik dago oraindik narraziorako eta pinturako udazkenean irekiko da.

Dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek, hainbestetan bizigarri, hondatu egin zituzten taldeak duela zortzi urte eratu zituen euskarazko sariak. «Sari bera eman genion haste-hastetik bi modalitatei» azaldu du Gutierrezek, «baina gobernuaren dirulaguntza bera zen, eta guretzat halako bi zen gastua. Egoera jasanezina zen, eta pentsatu genuen deia bi hizkuntzentzat egin eta sari bakarra ematea, baina horrek ere ez zuen emaitza onik eman. Zein zen gai bi hizkuntz ezberdinetako lanak parez-pare epaitzeko?». Arazo ekonomikoak gora-behera, euskarazko lanen kopurua urria zela oso —«gehien izan genuen urtean 20 bat»— azpimarratu du taldekoak, eta irabazleak beti izen berak zirela. «Gogoz kontra izanik ere» sarrik soilik gaztelarazko lanendako uztea erabaki zuten duela lau urte.

Lehiaketaren mailaren lekuko, poesia sariaren iazko epaimahaiari Espainiako hiru literatura saridun izan ziren —Jose Hierro, Angel Garcia Lopez eta Antonio Hernandez—, eta bi idazleren artean banatu zen lehen saria. Izan ere, sari hau da talde honi fama handiena eman diona, alde ederra baitago narrazioko lehiaketara bidaltzen diren lanen kopuruarekin alderatuz gero. Gutierrezen ustetan, asko idazten den seinalea da hori. «Poesiaren inguruan hipokresia handia izan da beti, askotan ezberdintzen zelako neskek eta mutikoek egiten zuten poesia. Gaur egun jende askok idazten du, eta ez dira lotsatzen horregatik. Gainera, poesia lehiaketa asko daudenez, jende askok bidaltzen dizkigu lanak».

Bidea egina dago, zailena mota honetako lehiaketa bat altxatzea baita. Lehiaketa antolatzea, egun, duela hamar urte baino lan gutxiago kosta zaiela aitortu dute taldekoak, ia automatikoki bidaltzen dituztelako deialdiaren oinarriak. Gainera, duela bederatzietatik hona idazle gazteendako lehiaketak antolatzen dituz taldeak, eta herriko gazte eta nagusiekin egiten dituen ikastaro eta ateraldiak, handik kanpo ezezagunagoak izanik ere, arrakasta handia dute. 48 ari dira Bilaketak dituen 'Kultura', 'Gazteak' eta 'Zaharrak' sailetan, baina lehiaketengatik dira ezagunak herrikanpo. Eta ez dute gelditzeko asmorik. «Gora egingo duen saria izango da, dudarik ez».



Bilaketa taldea duela zortzi urte antolatzen hasi zen euskarazko sariak duela lau urte desagertu ziren, arazo ekonomikoak zirela eta. Hala ere, taldeak argitara duen bigarren antologiaren barruan Tomas Alonso Garcíaren euskarazko poema hau bildua du, bakarra hain zuzen ere. Nafarroako Kultur Kontseiluko partaide ohia eta euskarazko narrazio laburren I. Arturo Kanpion lehiaketaren irabazlea, hainbat argitalpenetan kolaborazioak egin ditu Tomas Alonsok.

Ni nauzu

Ni nauzu.

Gau honetan zuk behar duzun giza aberea, ni nauzu.
Lazeriak zapaltzen ibiltzen dena.
Irritsaren begietan erneguak goitikatzen dituen.

Bai, ni nauzu.

Lizunkeriaren bidaide iraingarria.
Erokeriari jarraikiz itsu itsuan
korrika egiten duen anka makurren basatiak.

Bai, ni nauzu.

Basamortuko mutua.
Predestinazioaren aurka haren ixiltasunez duen oihukatzen,
bidexidor zoldazueta erremusinetaz elikatzen.

Bai, ni nauzu.

Mutxurdinen abestiek mukizuak garbitzen dena.
Tirokatuen odol, agureen lerre eta ezdukien malkoak
irrikaz beterik dastatzen dituen mozkor amorratuak.

Bai, ni nauzu.

Gure emakumeen mingostasunez maitakeriari kilimatzea dagokionari.
Gorrotaren umekia itotzen duen ferekazko iturriak.
Haren kabuz hiltegiara doan txahala gordetzaille gabekorik.

Bai, ni nauzu.

Honelako bakardadean behar duzun giza aberea, ni nauzu.
Eta zure bila nator. Nahiz eta mehatxuak itzulipurdika heldu.
Nahiz eta amets tradituak izeketan blai hondoratu,
bila natorkizu, laztana. Ez izan beldur.
Zeren eta honelako hostasunean behar duzun giza aberea, ni nauzu.
Bai, ni nauzu.

Zito Joxe

● Jito Joxe, Josetxo *el gitano*, Jose Antimasberes... tokian tokikoa baina orotan dantzaria/ *el bailarín* deitua zena zendu da berriki.

Jende anitzek ezontzen zuen, mendialdean batez ere, urtero herriz-herriz beitzebilen haren kastako bizimolde zaharra segituz. Kauter lanetan pertzak eta ontziak konpontzen nola parasolak, patakak biltzen edo kabala tratuan, alde batetik bertzerantz atera beharrez atxematen ginduen beti. Baina normalean dantzan ginduen kausitzen, oi! eta nola maite zuen dantzan aritzea! Zernahi musika sonatzen zelarik hara zoan prestuki, krisketak eskuetan klaska-klaska, buelta eta jauzi, gorpua arin, zangoak arinago gizaseme plantakoa beitzen lerdana, dotorea, fina, ezinago abila.

Berdin Sanferminetan Gaztelu plazako arkupeetan, nola herrietako festetan han zen, xabalkoan, tabernan...edo autobusa barnean. Behin goizeko zortzietan La Montañesa harturik dantzari zakon ekin alki tarteko bide hesituan, aintzina-gibelera hasik hartu gabe, Erro mendia goiti eta beheti Iruñeraino, geinerako bidaiarien gozamerako.

Unatu ondorean bakarrik zuen dantzaldia finitzen, tente, bilo kixkur luzea itsasirik eta beti izerditan blai.

Sosak bildu nahiz errezuen dantza egiten naski, alta ez beti ongi atera. Behin baino gehiagotan ebatsi zakoten zerabilen musika aparatua...zeren zito gisa arras desastrea beitzen; ardua kontatzen zuen kabala itsua saldu zakotenekoa bera goartu gabe, «pentsa *payo* batek zitoa engainatu azienda kontutan!» zioen umorez.

Ez dugu, ez, berriz topatuko bide hoietan barna daelarik azkenetariko orga geinean, ez eta jagoiti ikusiko dantzan ariz, halere herriko festetan musika sonatzen delarik, jota bereziki, gogorra etorriko zaitugu haren irudi fina.

Herioak supituki eraman du betiko Erro ibarrean zegoelarik, hain supituki non erabat hila ote den dudak izan badira. Hilmezan apetzak pasodoble bat jotzeko eskatu omen zakon organistari salbuespen bat eginenez, bai eta jotzeko eskatu ere Josetxo han berean zutituko ote zen beldurrez.

Luisa Ziganda

Galdera: Luisa Ziganda. Izengoitia gabea. Tribunalaren aginduz argazkia eta hatzmarkak eskatuak. Hiru aldiz detenitua; epaiketa eta kondenarik gabea. Bere senarra den Julio Garcíarekin Informatika teknikari lan egiten ahal du. Metro eta hiruetan hoge. Berrogeita hamar kilo. Begi berde-urdinak. Biloa belz ilun, beltz, gorri edo errubio-grisak. Hau da, edozein kolorekin pinta dezake burua. Ederra edo naragarria iruditzen ahal du, segun eta zer komeni zaion. Ederra iruditzea komeni zaionean, ez dago gizonik neska horrek oinperatzen ez duenik. Nardagarria izaten da berak nahi duena lortzen ez duenean. 10.000koak gustatzen zaizkio, auto deportibo distiratsuak eta musika zuzenean. Kontuz harraganatzean. Ni hareganatu egin nintzen, eta atsaldetan hartan senarra kartzelatik atera berria zen. Ez dakit nola salbatu nuen bizia. Beharrik senarra kartzelatik atera zela. Seguru aski harekin segituz gero, honezkero akabo. Senarra, egia esan, «es una bellissima persona», esaten den bezala. Neska galgarri horri nahi duena emateak lanak ematen dizkio gizarajoari. Bazuen txirindula tailer txiki bat, eta ahal den neurriraino zoriontsua zen aukeran. Goiz batean neskak leopardo zamarra bat eskatu zion. Gizonak buruan boneta jauntzi, antiojuak eta lenteak, kirol-txamarra eta kirol-zatak, eta bankuko bidea hartu zuen, harrapakin eske.

Orain neska tematu da lehendabiziko euskal Bibliarekin. Niri esan zidan ez nuela kurairik hori lapurtzeko. Hori neska galgarria. Sugeak txoriari begiratzen dionean bezala, ipnotizatzen zaitu, eta gero noraezean, galbidera. Beharrik senarra kartzelatik atera berria zela. Honezkero gizarajoa ibiliko da hala edo nola liburu hori harrapatu nahian. Zer egin daiteke halako nesketatik begiratzeko?

Erantzuna: Ez duzu zer egina. Ez da posible. Ezin liteke. Ulises jaunak lekutzea lortu



«Jenero beltzeko liburuak eta pelikulak irakurritik eta ikusiz arindu egiten da oinazea, baina sendagaitza da».



«Gizon horrek, munduan galtzen diren haurrak ikusita, ziur aski ez du bere etxean denbora askorik ematen».

zuen Circeren besoetatik. Neskak Ulisesen bidelagunak txerri bihurtu zituen, eta Ifernuko atariraino helerazi zuen mutikoa, eta azken honek Penelope asko maite zuela ere, Circe eta Ulises hiruzpalau seme-alabaren aita-amak izan ziren. Baina Ulises bezalakorik ez dago. Eta badirudi gaur egungo Circeak Eeakoa baino maltzurragoak direla. Jenero beltzeko liburuak eta pelikulak irakurritik eta ikusiz, arindu egiten da oinazea, baina sendagaitza da.

Galdera: Hiru urteko haur bat naiz. Oihanera joan nintzen eta padulean galdu nintzen. Negar egiten nuen. Ez nekien norantz jo hasieran; gero, loihan sartzean, ezin nituen oinak ere mugitu. Zeruan norbaitek aditu ninduen, Gizon bat ageri zen, zuriz jauntzia. Musu bat eman zidan. Eskutik heldu zidan. Nere amarengana eraman ninduen. Nere ama, izuak zuritua, haranen barna nire bila ari zen. Aurkitu ninduean bakarrik nengoan.

Zuriz jantzitako gizon hura joana zen. Hark utzi zidan gauza bakarra bisaian utzi zidan, egunsentiko lantxurdea. Nola eman ahal dizkiot eskerrak gizon horri?

Erantzuna: Ziur aski gizon horrek ez du buzoirik. Eta buzoirik izanda ere, munduan galtzen diren haurrak ikusita, ziur aski ez du bere etxean denbora askorik ematen.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Frai Meltxor Oiangurenen lanak

Euskaldunok Filipinako uhartetan hizkuntzalari



Euskaldunok, Filipina uhartetako biztanleak, okupatzaileak jazotzeaz gainera —oroit bedi bestenaz Urdaneta ordiziar konkistatzailea eta Legazpi Zumarragako nabigatzailea—, hizkuntzalaritza kontuetan garrantzi nagusiagoak gerta gakizkieke. Bare itsaz zabaleko irlen izen beretik hasita, izan ere aipatu Legazpi gobernadoreak Espainiako Felipe II.aren omenez bataiatu baitzuten.

Halere, bada interes handiagoa sortaraz dakigukeenik, politika kontuak alde batera utzirik, eta hizkuntzalaritzaren mundu labankorran barna abiatuta, Laramendi beraren aurreko erraldoi bat aipatuz, Frai Meltxor de Santa Ines frantxiskotarra hain zuzen ere, Pedro Eugenio Oianguren Azkarraga 1688. urteko azaroaren 18an sortu zen Gipuzkoako Leintz-Gatzaga bizkai herrian. 1705. urtean Valladolideko San Diego komentuan Asiskoen abitua jantzi zuen lehendabiziko aldiz, eta handik bost urtetara, Filipinetara joateko misiolari talde batean sartu zen, Mexiko eta Manilarako bi urtetako bidaiak Akapulko itsasuntzian eginez. Kontxintxinara joatea egokitu zitzaion eta hara ailegatu zenean bertako gentilek giltzaperatuz harrera ezin hobea egin zioten, handik gutxira Manilara harzara igortzeko. Manilako anai nagusiak aski kaxkar ikusi bide edo, 1721. an Mexikora bidali zuen, gure Meltxor handik Kantabriako probintziara itzul zedin asmoz, baina uste aitzinetik sendatu omen zen eta, Mexikoko Cuevas komentutik berriro abiatu zen Filipinetara 1724. urtean.

Lehendabizi Doktrineren izeneko herriko Aguas Santasko lekaide-txean egon zen, geroago Sariaia herrian erretore gisa iharduteko. Orduan hango harrizko eliza eraikitzeari ekin zion, eta igeltsu eta karez begiak itsututa Mexikora abiatu behar izan zuen berriro 1736. urtean. Bizkatartean, bere asmoa amets, behin betikoz Japonera joatekoarena, bertan behera utzi zuen.

Hortxe erdizka sendatu zen eta bere idazkier eskaini zion orduan zun denbora guziaz. Azkenekoz, 1747. urteko martxoan hil zen San Agustin de las Cuevasko haur babesetxean, 1737. urtetik bertako arduraduna zelarrik.

Zakizkien hizkuntzak ugari eta ezohizkoak baziren, hebraiera, grekera, latina, txinera, tagalua, niponiera, aramita eta malaiera. Horrelako hizkuntza ondare itzelarekin meritu ikaragarriko lanak ondu zituen. Egun, bi besterik ez dira geratzen, eta hala ere benetan arraroak dira kausitzeko. hauek ditugu: lehendabizi 200 orrialdetik gorakoa den *Arte de la lengua japona, divi-*

*dido en quatro libros segun el arte de Nebrixa, con algunas voces propias de la escritura, y otras de los lenguages de Ximo, y del Cami, y con algunas perifrases y figuras, Mexikon agertu zena, Joseph Bernardo Hogalen etxean 1738. urteko San Jose egun bertan. Bertan niponiera ikasteko metodoa azaltzen du, aditz taula osatu batekin eta espainiera-niponierazko hiztegi labur batez hornituta. Fr. Marcellino Civezza bibliografia konposatzaile italiarrak bere 1879.ko *Saggio di bibliografia geografica storica etnografica sanfrancescana* saiakera mardulean honela diosku Oiangurenen liburua: «Inedito nell'archivio del nostro convento di Manila nelle Filippine. Libro rarissimo ed importantissimo per gli studi della lingua giapponese venduto ultimamente in Prigi 250 franchi —1874. urtean hain zuzen ere—. Un esemplare manoscritto di quest'opera era posseduto dal Klapproth peri cum tutti gli altri nel incendio della ricchissima biblioteca di questo insigne orientalista». Heinrich Julius Klapproth (Berlin, 1783-Parise, 1835), San Petersburgoko akademiaren txinera irakaslea dugu 1804. urtetik aitzina, eta Kaukasoko hizkuntzen ikerlaria —*Reise in den asiatischen literatur*, San Petersburgo, 1810; *Asia poliglota*, Paris, 1823; *Tableau historique, géographique et politique du Caucase*, Paris, 1827—. Bere bigarren lan argitaratua *Tagalismo elucidado y alusion que tiene con las lenguas china, hebrea y griega* dugu, Mexikon ere agertua Franzisko Jabier Santxorenaren moldiztegian, 1742. urtean, 240 orrialdetako lan eruditua izan zelarrik.*

Baina euskaldunei gehien interesatzen zaizkigun bere hiru lanak egun galduta dauzkagu. *Diccionario trilingue tagalo-castellano-cantabro*, *Cantabrisimo elucidado* eta *Arte de la lengua vascongada*. Azken bi hauen erreferentziak ezagunak diren aipatu bi liburutan badakartza: «*Otras raices son indiferentes para uno y otro sexo, y esto sucede tambien en la lengua hebrea, como lo tenemos probado en el Arte cantabro que se escribio en el año 1715 y en el Cantabrisimo elucidado*», eta «*La lengua japona en la mayor parte es subjuntiva, como lo es nuestra lengua vascongada de que egimus in sua arte*».

Ahitzeko, barka nazatela nijongo hitzunez arras egoki izkiriaturik ez badago, baina bihoa hemendik Frai Meltxorren omenezko ele batzuk hain ongi zakien hizkuntza batetan: Konosenkiosi wa nijongo guengogakuno sakka subarasii des. Dewa wata aimwashoo. Sayonara.


■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko bigarren ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 28an jokatua.

Vadim Zvjaginsev, 2.585 ELOkoa (Errusia)-Lluis Comas, 2.500 ELOkoa (Katalunia).

1.Zf3,e6; 2.c4,f5; 3.g3,Zf6; 4.Ag2,Ae7; 5.0-0,0-0; 6.Zc3,d6; 7.d3,c5; 8.a3,Zc6; 9.Gb1,a5; 10.d4,Ze4; 11.d5,Zc3; 12.c3,d5; 13.d5,Zb8; 14.Ze1,Za6; 15.c4. Zaldia ez dago ongi, eta txuriek irteerak moztu dizkiote. 15...Zc7; 16.Zd3,Af6; 17.Af4,Ze8; 18.h4,Ga6; 19.Dc2.

Zaldiaren zutabea dago jokoan. Kontrolak erasorako bidea ematen du, batez ere txuriei.

19...Gb6; 20. Ad2,Ga6; 21.fG-e1,Eh8; 22.e4. Beltzek denbora galdu dute, eta orain irtenbide gaitza daukate. Jatea onena da, nahiz eta arrisku-tua izan. Ikus Koadroa. 22...Dc7; 23.Zf4,Ad4; 24.f5. Beltzek 'Af5' eginez gero, 25.Df5,Gf5; 26.Ge8 xa. Peoi bat galdu dute beltzek, beraz, 'De4' sarrera ere badago. Beltzek sufritzeko gogorik ez, partida utzi zuten.



Sanjoanekin batera uda heltzen dela jakina da, baina horrekin batera toki askotan urte osoan irrikan espero diren jaiak ere hasten ohi dira. Nafarroako hainbat herritan erromeriak eta dantzarako egunak izango dira hauek, eta San Joan suak ikusi ahal izango dira toki orotan. Arbizu, Barañain, Arakil-Uharte eta Obanos herriek beren jai nagusiak ospatuko dituzte, eta beste batzuek txikia. Aukeraketa egin dugu denen artean, baina denetan topatuko duzu giro ona.

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Uda (jaia) heldu da

Sanjoanek herri batzuetako festen hasiera markatzen badute, beste hainbat herritan udaren hasiera markatzen dituzte, 'festa txikiak' dira nolabait esateko. Sakanan bereziki ugari dira, eta Arbizu eta Uharte Arakilen herriko jaiak izanik, Altsasun, Bakaikun, Ihabar eta Irañetan suteak eta erromeriara bisitaldiak izango dira jaietako egitarau nagusia.

Arbizun gaur, ostirala, arratsaldeko 7.30etan hasiko dira Sanjoanak, San Joaneko ermitara igoerarekin. Ordu erdi beranduago izango dira bezperak, txalaparta eta guzti, eta 21.30etan handik behera herrira itzulia izango da, Gauez, dantzaldia egingo da Jokaldi taldearekin, goizeko lauak arte, eta hortik aurrera Basoko txarangarekin dantzaldia izango da. Egitarau ofiziala hori izango da, baina Arbizuko festetako benetako marka ia egunero herriko koadrilek kalean egiten dituzten afariak izango dira. Aurten gainera, aspaldiko ametsa zen polikiroldegia estreinatuko dute ofizialki, eta pilota partiduak ez dira faltako.

Larunbatean dianak izango dira goizean, eta eguerdian meza, San Joanen. Arratsaldean txirrindulariak eta trikitixa izango da herrian zehar eta arratsaldeko bederatzieta Badajauz taldearekin dantzaldia izango da plazan. Igandean zazpantzarrik ariko dira herrian zehar, eta goizean piperropil biltzea izango da etxez etxe, arratsaldean merienda ona egiteko. Eguerdian labore erakusketa paratuko da eta gazteen pilota partiduak eta herri kirola izango da. Arratsaldean sokatira eta musika. Astelehenean herritarren arteko kirolak izango dira eguerdian, eta ondoren bazkaria egingo dute herritar guztiek kalean. Antzerkia eta kalejira izango dira arratsaldean, eta gero dantzaldia, Ekus taldearekin.

Asteartean jubilatuen meza izango da goizean, eta arratsaldean, zazpitan, bertsolariak. Ondoren musika, Joselu taldearekin. Asteazkenean, hilak 28, haurrendako eguna izango da, eta ostegunean, ginkana eta herritarren arteko kirolak izango dira plater gozoenak. Truk txapelketa eta dantzaldiekin amaituko da eguna eta jaiak, eutsi diotenarendako, goizeko seietan, txokolatada batekin.

Barañainen asteazkenean hasi ziren jaiak eta igandera arte luzatuko dira. Gaur ostiral Barañaingo Musika Eskolako Banda Txikia, gaitari eta Barañaingo Txistulariekin dianak izango dira egunaren hasiera, eta 9.30etan haur entzierroa izango da Udaletxe Plazan. 10.30etan Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera izango da udaletxe pla-

zatik, eta 11etatik 11etatik aurrera izugarriko programazioa dago iragarrita, haur jaialdia, aiton-amonon aldeko meza, txarangaren irteera udaletxe plazatik eta japoniar lehergailuen jaurtiketekin. 14.00etan, aiton-amonon bazkaria izango da Sahats Institutuan. Arratsaldean haur jaialdia toki berean, eta zazpitan aurrera Antzekizuna taldearen eskutik txotxongiloak. 21.30etatik, Gaztetxetik Akelarren Kalejiraren irteera izango da, eta 22.15etan, Ferietako esparruan, akelarrea. Ondoren zezensuzkoa, eta ordubatek aurrera Los Dinosaurios taldearen kontzertua.

A Itsasun larunbatean zuhaitz-adarrak paratuko zaizkie neskei balkoietan. Neska gustukoa izanez gero, lizarra; bestela, makala.

Larunbatean, auroroak ariko dira goizean goiz, Santa Maria Elizatik, eta gero haur entzierroa eta japoniar lehergailuen jaurtiketa izango da. 10.30etatik aurrera artisauen feria ikusi ahal izango da udaletxe plazan, eta 11etan Ferietako esparrutik aterako da haur trenak, eta seietatik aurrera, kalderete txapelketa izango da Lagunak Elkarteko erretegian. Arratsaldean dantzaldia izango da Ethel eta Malvarrosa taldeekin, eta ordu batek aurrera, Parabellum, Balerdi-Balerdi eta Begira taldeekin kontzertua, Ferietako esparruan.

Igandean izango da azken eguna, eta goizeko zortzietan



Sanjoanak Euskal Herriko jai berezietakoak dira.

Udaletxe Plazatik aterako den dianarekin zabalduko da. 9.30etan, ia egunero bezala, Haur Entzierroa izango da eta gero japoniar lehergailuen jaurtiketa. 10etan erraldoi eta buruhandien konpartsa aterako da udaletxe plazatik. Eguerdian Barañaingo Musika Eskolako Banda Gaztearen kontzertua entzungai izango da udaletxe plazan, eta 13.30etan konpartsaren agurra, toki berean. Arratsaldean, 18.00etan, jota jaialdia entzun ahal izango da Ezkien Plazan, eta 19.00etan Retablo de figurillas taldearen txotxongilo saioa. Dantzaldia eta zezensuzkoaren ondotik, jaien amaiera izango da.

Altsasun, bestalde, gaur, ostirala hasiko dira jaiak. San Joaneko ermitara udal berria eta herriko jendea hurbilduko da arratsaldeko zortzietan, han egingo den mezara eta piztuko den sua ikustera, eta ondoren, ohi bezala, kalejiran hurbilduko dira plazara, han zortzikoak dantatzeko eta udalaren ardoa dastatzeko. Plazan musika izango da. Bihar, larunbata, afariak herriko kaleetan egingo dituzte koadrilek, eta gogoia eta animoa nahikoa izanez gero, zuhaitz-adarrak nesken balkoietan jartzeko prestatuko dira. Ohi denez, lizarra eta makala erabiltzen da horretarako. Neska gustukoa eta atsegina izanez gero, lizar adarra paratuko zaio, eta norbaiten gustukoa ez bada, makala izango du hurrengo goizean balkoian itsatsita. Gauzak txukun egiten dituztenek arrosa sorta lotuko diote adarrari. Hurrengo egunean, adarrik dotorena epaitzeko taldeak zeharkatuko du herria.

Bakaikun ere festa txikiak ospatuko dira San Joanetan, eta gaur arratsaldean auzoa egingo da herrian, gazta eta ardoz ongi hornituta. Akordeoiak jostatuko ditu bakaikuarrak arratsalde berezi honetan. Bihar, larunbata, San Joaneko ermitara igoko dira herrikoak eta, mezaren ondotik, hamaiketako egingo da bertan, ardo eta guzti.

Burlatan ere modu bereziaz ospatzen dute San Joan eguna, eta gaur, 20.30etan, txistorrada izango da herritar guztiendako Gure Kabia Elkarteko lorategian. 23.00etan zinema ikusi ahal izango da Floiraceko Plazan, teilatua zerua dela. 'El fugitivo' filmea eskainiko dute. 23.00etan San Joan suak piztuko dira Larrainetako Plazan. Larunbata eta igandetan ere ekitaldi franko antolatu ditu Burlatoko Jaietako Batzordeak.

Iruñean bi auzok prestatu dute ekitaldi berezia asteburu honetarako. Donibanen, jakina, eta Txantrean, beste auzo guztietan suak piztuko dira non-nahi, Nafarroa osoan bezala.

«Emakumeen filmeak ikusteko oraindik erakustaldiak egin behar dira propio»

A. UNANUE / IRUNEA

Merce Coll harrituta gelditu zen goizeko hamar t'erdietako emanaldian hainbeste jende ikustean, are gehiago solasaldian taldeko gehienak etxe-koandreak zirela esan ziotenean. Maria Novaro zinemagile mexikarraren 'El jardín del Eden' filmea —gomenda-

hienak amerikarrak eta gizonezkoek eginak dira. Egia da gero eta emakume gehiagoren lanak sartzen ari direla sare komertzialetan, baina Hego Ameriketako eta Hirugarren Munduko emakumezkoen lan gehientsuenak ezezagunak dira oraindik. Horregatik, emakumeen filmeak gure pantailetan ikusi ahal izateko orain-

gertatzen da egun guztia emakumeari buruz hitz egiten jardutea. Askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait gai desberdinez esateko eta erakusteko daukatena ikustea eta hortik jo genuen. Emakumeek egingo duten artean denetarik dago. Asko militantziakoak dira oraindik, azkenaldian lesbianismoari buruzko dezente

benetakoa da, ez dira estereotipo hutsak filme komertzial gehienetan bezala. Normalean 'Armas de mujer' tipoko pelikulak dira. 'Pulp Fiction' bera izugarri gustatu zitzaidan, baina aitortu beharrekoa da emakumeen paperak ez zirela filmeko hoberenak. Gizonezko zinemagile gutxi batzuek emakume zoragarriak —azkenean artean asko gustatu zait Claude Chabrolen 'El infierno'— sortu badituzte ere, errazagoa da emakumeek zuzendutako pelikuletan aurkitzea emakumezko pertsonaia aberatsagoak eta interesgarriagoak». Erakustaldietarako



Merce Coll, Iruñeko Golem zinematokietan.

JOXE LACALLE

garria benetan— komentatze-
ra etorria zen Iruñeko Golemetara, eta urduri samar zegoen hasi aurretik, entzuleek horixe, entzun besterik ez zutelakoan egingo. Ez zekien goizeko emanaldietan publikoa eta giroa zeharo bereziak izaten direla eta arazoa bestelakoa dela, hitz egiteko txanda lortzea alegia.

«Zergatik eta zertarako emakumeek egindako zinema erakustaldia?», ohiko galdera, honelako erakustaldiak antolatzen dituztenek gehien gorrotatzen dutena («inori ez zaio galdera hori bururatzen Txinako edo mendiko zinemari buruzko ziklo bat egiten denean»), baina tira, gidioiak hala eskatzen badu, erantzun beharko: «Arrazoia begi-bistakoa da. Zinematoki komertzialetako eskaintzari erreparratzen badiozu, pelikula ge-

dik erakustaldiak propio antolatu behar direlako gabiltza saltsa hauetan. Bestela sekula ez genituzke ikusiko lan zoragarri hauek».

IPESek antolaturiko erakustaldiak bederatzigarren aldian du aurrean. Drag Magic-ek Bartzelonan egiten duena gaztetxoagoa da, hiru urte baino ez ditu. Iruñekoaren jatorrizko planteamendua desberdina zen. Lehenengo urteetan emakumei buruzko pelikulak ekartzen zituzten, emakumeek eginak nahiz gizonezkoek eginak izan. Haatik, emakumeen arazoei hamaika bira emateaz aspertu zirenean emakumeek egindako pelikulak ekartzea erabaki zuten. Bartzelonako erakustaldia planteamendu berarekin jaio zen, eta Merce Collek egokiago irizten dio horri: «Interesgarriagoa da. Azkenean itogarri samarra

atera dira, baina beste batzuek, Novaroren kasu, ez daukate zerikusirik gai horiekin».

Maria Novararen pelikulo pertsonaiak nortasun kulturalaren eta pertsonalaren bila dabilta. Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugan, Tijuana, zauri bihurtu den mugaren inguruan nork bere ametsa dauka. Bestaldean inoiz izan ez diren mexikarrek muga nola edo hala pasatzea; muga hori aspaldi pasatu zutenak, berriz, galdutako nortasunaren bila itzuli dira; eta sekula sustrairik izan ez duten estatubatuarrek ere zerbaiten bila dabilta bazter horietan, nahiz eta beraiek ere ez dakiten zer aurkitu nahi duten.

Mercek azaldu zuenez, «gaia ez da berez emakumeena, baina hala ere igertzen da emakume batek egingo duena. Emakumeen protagonismoa

Emakumeek zuzendutako filmeetan errazago aurkitzen dira emakumezko pertsonaia aberatsagoak eta interesgarriagoak».

filmeak aukeratzeko orduan eskaintza sobera izaten dute antolatzaileek. «Alde horretatik ez dugu inolako arazorik, ehundaka pelikula izaten ditugu aukeran. Diru kontuek arazo gehiago ematen dizkigute, dirulaguntzak jaso arren eskas ibiltzen baikara beti», dio Mercek. Institutuko irakasle honen iritziz, gaur egun Kandan, Frantzia, Zeelanda Berria, Kuban eta Mexikon daude emakume zinemagile interesgarrienak.

Iruñeko erakustaldian Tunisia, Frantzia, Mexiko eta Estatu Batuetako filmeak izan dira ikusgai. Erakustaldia gaur amaituko da, 'Los amigos del muerto' (Iciar Bollainena) laburmetraiarekin eta Azucena Rodriguezen 'Entre Rojas' pelikularekin.

Merce Coll

FILOSOFIA IRAKASLEA



SOSLAIA

68ko uzta

Drag Magic elkarteak —«izena 68koa da, dudarik gabe», dio Merce Coll taldeko arduradunetako batek— orain dela hogeita bost urte sortu zen, garai hartako giroak bultzatuta eta katalanezko zinema eragiteko asmoz, baina denboraren eta aldaketa sozialen poderioz bere zereginak ere aldatu egin dira. Gaur egun zinema ikasle gazteengana hurbiltzeko ahaleginetan dabil. Horrez gainera, emakumeek egindako pelikulen erakustaldiak antolatzen ditu (hirugarrena amaitu berria da Bartzelonan), Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileak Iruñean egiten duen moduan. Merce Iruñeko IX. Erakustaldian izan zen herenegun, «zorionez edo zoritxarrez emakumeen filmeak ikusteko oraindik honelakoak behar dira eta».

NOSKI JATOR

THE PRISON: HARD-BRUTALITY AND VIOLENCE!! ♦♦♦



© zaldi EROA